

**10/2020 INSTRUKZIOA**  
**OHAR OSAGARRIA****NORK: OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA****NORI: OSAKIDETZAKO ZERBITZU ERAKUNDEETAKO KUDEAKETAKO ZUZENDARITZAK****GAIA: ARAU OSAGARRIAK, ASTE SANTUKO JAIEGUNETAN EGINGO DIREN APARTEKO LANALDIEN KONPENTSAZIO IRIZPIDEAK ZEHAZTEKO**

10/2020 Instrukzioa koronabirusaren pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-larrialdiko egoeran Zuzendaritza Batzordearen zehaztapenak betetzeko eman zen, eta, besteak beste, arreta normalizatua mantentzea aurreikusi zuen Aste Santuko jaiegunetarako.

Arreta normalizatuari eusteak berekin dakar jarraibide horretan aipatzen diren eremu asistentzialetako profesionalek egun horietan zentrora joan behar dutela zerbitzuak ematera, zerbitzuen ohiko estaldura bermatuz, jaiegun horietarako hasieran aurreikusitako plangintzaren gainetik.

Horregatik, martxoaren 18ko Aginduan Osasuneko sailburuak araututako Zuzendaritza Batzordearen jarraibideak betetzeko, honako irizpide hauek jakinarazten dira:

Azaldutakoaren arabera, planifikatutako lan-kartelerak mantendu egin behar dira, hots, Aste Santuko jaiegunetarako karteleretan finkatutako txandak eta guardiak.

10/2020 jarraibidean ezarritako zerbitzuetan arreta normalizatua bermatzera lanpostura joan behar duten langileei dagokienez, Osakidetza lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren arauak aplikatuko dira. Horrela, profesional horiek egindako gehiegizko orduak, lanaldi arrunta gaingitzen badute, honela konpentsatuko dira: lan egindako ordu bakoitzeko bi ordu.

Ezarritako ordu-kompentsazioa ezinezkoa bada, salbuespenez, eta alarma-egoerak aparteko erantzuna behar duenez, modu berean ordaindu ahal izango zaie langileei, hau da, lan egindako ordu bakoitzeko bi ordu ordainduz, kategoriaren eta lanpostu funtzionalaren orduko prezioaren arabera. Kalkulua kategoriaren urteko ordainsari gordinen oinarrituko da, I. Eranskinari jarraiki (langile fakultatiboen produktibitate finkoaren osagarria barne) eta urteko 1592 orduak kontuan hartuta.

Irizpide bera aplikatuko zaie prestakuntzan diharduten egoiliarrei. Aste Santuko jaiegunetarako planifikatutako lan-kartelerei eutsiko diete. Langile horiek zentrora joan behar badute 10/2020 jarraibidearen arabera ezarritako zerbitzuetan arreta normalizatua bermatzera, ohiko lanaldiaz gain, jarraibide honetan ezarritako konpentsazio-arauak aplikatuko zaizkie.

Ordainsarien zenbatekoen ordainketak 15. infotipoan mekanizatuko dira, horretarako gaituko den kontzeptuan orduak zehaztuz (SAP kudeaketa-sisteman gaituta dagoenean adieraziko da kontzeptuaren kodea). Kalkulua sisteman egingo da zuzenean; beraz, zenbatekorik ez da mekanizatu beharko.

Gasteizen, 2020ko apirilaren 8an



Izpta. Juan Luis Diego Casals  
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA